2021eko otsailean erregistratutako langabezia

2021ko otsailean zehar LANBIDEko bulegoetan % 1,30 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 129.028 da, aurreko hilean baino 1.702 gutxiago. Otsailean, 2008ko krisia baino lehen, langabezia hazi egiten zen, eta hazi egin zen ere krisi garaian. 2015 geroztik, aldiz, langabezia murriztu egiten da (2017 urtean izan ezik) baino hil honetan erregistratutako jaitsiera baino modu apalagoan; beraz, hil honetako bilakaera positiboa dela esan dezakegu.

Langabetuen hilabeteko saldoaren bilakaera



	7-feb	8-feb	9-feb	10-feb	11-feb	12-feb	13-feb	14-feb	15-feb	16-feb	17-feb	18-feb	19-feb	20-feb	21-feb
Series1	275	1,926	5,560	1,456	2,338	3,463	2,725	1,865	-1,270	-237	146	-1,091	-887	-410	-1,702

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 11.789 pertsonetan hazi da langabezia. 2020ko irailaz geroztik, langabeziaren murrizketaren erritmoa altua da, errekuperazioaren adierazgarri.

Langabeziaren urte arteko saldoaren bilakaera

- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean gehiago murrizten da (-% 1,84) emakumezkoen artean baino (-% 0,87). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen langabezia % 12,18 hazi da eta emakumezkoena % 8,41. Gaur egun langabeen % 55,56 emakumeak dira. Beharrezkotzat jotzen diren jarduera askotan (osasuna, irekita mantendu zen merkataritza…) emakumeen pisua handia da, beraz, normala da emakumezkoen artean eragina apalagoa izatea.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia jaitsiera nabarmenena 25-34 urte bitartekoen artean izan da, % 2,88 murriztu da langabezia adin tarte horretan, eta 35-44 urte bitartekoen artean izan da (-% 2,05). Langabezia 55 urtetik gorakoen artean hazi egin da (+% 0,18). Urte arteko bilakaeran 24 urte azpikoen hazkundea nabarmentzen da (+% 24,08); hazkunde apalena 54 urte gorakoen artean izan da (+% 6,26).

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Otsailean zehar, langabezia murriztu egin da sektore guztietan Lehen sektorean izan ezik (+% 0,54). Murrizketa handiena jasan duen sektorea Eraikuntza izan da (-% 2,07), ondoren Industrian (-% 1,97) eta, azkenik, Zerbitzu sektorean (-% 1,51). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 0,59 hazi da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz Zerbitzu sektoreko hazkundea (+% 10,35) eta Lehen sektorekoa (+% 8,89) nabarmentzen dira. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 13,12 hazi da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: janari eta edarien zerbitzuak (-504), hezkuntza (-118) eta produktu metalikoen fabrikazioa (-96). Langabezia hazkunde nabarmenena egoitzetako laguntzan izan da (+171).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 185 pertsonatan murriztu da (-% 0,27) eta epe laburrekoa 1.517 pertsonatan murriztu da (-% 2,42). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean (+% 0,12) eta epe luzekoen artean (+% 20,90) nabarmen hazi da langabezia. Egoera ahulenean aurkitzen diren pertsonak pairatu dute gehien lan merkatuaren gorabeheren eragina, beren egoera ezegonkorragatik lan merkatuan sartu eta atera dabiltzan pertsonak. Gertaera horren eragin zuen aurreko hileko langabeziaren hazkundea eta hilabete honetako murrizketa. Gaur egun 67.798 langabe, % 52,55, epe luzeko langabeak dira.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Otsailean langabeziaren bilakaera hiru lurraldeetan ondorengoa izan da: Araban % 1,45 murriztu da (321 pertsona gutxiago), Gipuzkoan % 1,65 murriztu da (576 pertsona gutxiago) eta Bizkaian % 1,09 murriztu da (805 pertsona gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz Arabak erregistratu du eboluzio okerrena % 13,01eko hazkundearekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 10,88ko igoerarekin eta azkenik Bizkaian % 8,82 hazi da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 458 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 1,81), Gasteizen 261 pertsonatan (-% 1,51) eta Donostian 166 pertsonatan (-% 1,87). Murrizketa nabarmenak izan dituzten beste eskualde batzuk, Ezker Eskualdea (-113), Gobela (-90) eta Bida-

soa Behera (-84) izan dira. Nerbioi Erdian (+9), Enkarterrietan (+8) eta Tolosaldean (+6) izandako igoerak nabarmentzen dira.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 21,18), Sestao (% 19,36), Alonsotegi (% 17,09), Balmaseda (% 17,08) eta Santurtzi (% 16,67%).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2021ko otsailean 44.750 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 698 langabe gutxiagok. Langabeen % 34,7k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 24.754 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 19,2 dira horiek. 19.996 langabek (% 15,5), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36,3), Araban % 34,3koa da eta Bizkaian % 34,0koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0.08 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 0.84 murriztu da.

Otsailean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,1 (20.794 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 1,37 murriztu da atzerritarren artean, eta % 0,95 bertakoen artean. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 11,26 hazi da, eta bertakoen artean % 9,83.

Langabe atzerritarren % 33,1 Afrika iparraldekoak dira, % 25,0 Latinoamerikatik datoz, % 18,5 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,5 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,8, azkenik, Asiatik. Otsailean Europar Esparru Ekonomikotik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-106); Afrika iparraldetik etorritakoen taldeak jarraitzen dio (-52).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 59,9k (77.224 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 838 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan % 1,07 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 8,94 hazi de langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,0 dira. Talde horretan % 2,09 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 10,30.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 24.218 dira, hau da, langabeen % 18,8. Talde hau otsailean zehar % 0,55 murriztu da, eta azken urtean % 13,33 hazi. Urteko erlazioan gehien hazi den taldea da, balore erlatiboetan.

Azkenik, langabeen % 12,4k (15.943 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 2,93 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 10,49 hazi azken urtean. Hileko erlazioan gehien murriztu den taldea izan da.

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan 44.436 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 1,12ko hazkundea). Guztira 4.008.789 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,30 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 3,02

hazi da, Errioxan % 2,29 hazi da, Kantabrian % 1,63 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 0,49 hazi da. Katalunian % 0,83 hazi da eta Madrilen % 1,69.

Urte arteko erlazioan % 10,06 hazi da langabezia EAEn, Estatuan % 23,50.

Lan-eskatzaile langabeak 2021ko otsailean

	ots-2021	urt-2021	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	57.343	58.418	-1.075	-1.84
EMAKUMEZKOAK	71.685	72.312	-627	-0.87
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	10.703	10.872	-169	-1.55
GIZONEZKOAK	5.580	5.701	-121	-2.12
EMAKUMEZKOAK	5.123	5.171	12	-0.93
25-44 URTE:				
GUZTIRA	53.834	55.168	-1.334	-2.42
GIZONEZKOAK	23.130	23.901	-771	-3.23
EMAKUMEZKOAK	30.704	31.267	-563	-1.80
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	64.491	64.690	-199	-0.31
GIZONEZKOAK	28.633	28.816	-183	-0.64
EMAKUMEZKOAK	35.858	35.874	-16	-0.04
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.769	2.754	15	0.54
INDUSTRIA	15.101	15.404	-303	-1.97
ERAIKUNTZA	8.346	8.522	-176	-2.07
ZERBITZUAK	87.022	88.353	-1.331	-1.51
AURREKO ENPLEGURIK GABE	15.790	15.697	93	0.59
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	21.855	22.176	-321	-1.45
BIZKAIA	72.774	73.579	-805	-1.09
GIPUZKOA	34.399	34.975	-576	-1.65
EAE	129.028	130.730	-1.702	-1.30

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.422	11.9%	-84	-1.86	263	6.32
Oarsoaldea	3.940	10.9%	-13	-0.33	409	11.58
Donostia-S.Seb.	8.717	9.8%	-166	-1.87	1.114	14.65
Donost.Mendebaldea	3.358	9.1%	-72	-2.10	434	14.84
Tolosaldea	2.168	9.2%	6	0.28	236	12.22
Urola Erdia	1.400	9.1%	-8	-0.57	153	12.27
Goiherri	1.738	8.1%	-74	-4.08	163	10.35
Deba Garaia	2.623	8.7%	-50	-1.87	201	8.30
Deba Behera	2.969	11.2%	-45	-1.49	116	4.07
Urola Garaia	1.189	9.9%	-25	-2.06	62	5.50
Urola Kosta	1.875	8.4%	-45	-2.34	223	13.50
GIPUZKOA	34.399	9.8%	-576	-1.65	3.374	10.88
Vitoria-Gasteiz	17.008	13.3%	-261	-1.51	1.913	12.67
Aialako Ibarra	2.431	12.8%	-48	-1.94	177	7.85
Arabar Errioxa	778	14.2%	1	0.13	113	16.99
Arabako lautada	814	10.8%	-13	-1.57	144	21.49
Gorbeia inguruak	333	7.1%	-8	-2.35	53	18.93
Arabako Ibarrak	456	8.9%	-14	-2.98	66	16.92
Arabako Mendialdea	120	7.7%	-3	-2.44	16	15.38
ARABA	21.855	12.9%	-321	-1.45	2.516	13.01
Gobela	5.223	10.2%	-90	-1.69	421	8.77
Txorierri	2.463	10.8%	-62	-2.46	279	12.77
Uribealdea	3.415	10.3%	-32	-0.93	366	12.00
Durangaldea	3.777	10.2%	-55	-1.44	321	9.29
Busturialdea	2.456	11.4%	23	0.95	135	5.82
Lea-Artibai	1.130	9.4%	18	1.62	111	10.89
Enkarterriak	2.144	13.9%	8	0.37	29	1.37
Arratia-Zornotza	1.638	9.3%	-20	-1.21	106	6.92
Arratia-Nerbioi	1.477	11.4%	9	0.61	170	13.01
Bilbo	24.883	14.9%	-458	-1.81	2.108	9.26
Ezkerraldea	19.004	15.3%	-113	-0.59	1.438	8.19
Ibaizabal	5.059	12.6%	-25	-0.49	431	9.31
BIZKAIA	72.774	13.1%	-805	-1.09	5.899	8.82
EAE	129.028	12.0%	-1,702	-1.30	11.789	10.06

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dualntziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.